

Donostiar haien garaia...

Soka-muturra (1)

ertakari batek bereizten ditu Irutxulo zaharra eta Donostia berria: 1902ko urtarrilaren 14an udalak soka-muturra debekatu zuen. Orain arte, orrialde honetan izen-abizeneko donostiarrak agertu izan ditugu: soka-muturrak, ordea, bere lekua ondo merezia du, hainbestera ino indarra izan baitzuen Irutxulo zahar hartan... Beraz, gaurkoa eta datorren astekoa idi korritze eta soka-muturrari eskainiko dizkiogu.



Noiz eta nola sortu ote zen idi korritzeko ohitura ez dago garbi; aspaldidanik sortua dela, ordea, bai. 1812an soldadu ingeles eta portugesez Donostian piztutako suak guztiz itzali gabe zirela, harri erori eta etxe hondakinen artean idia korritu omen zen hurrengo urtean. Ez zuten saltzeko garai hartako donostiarrak!

Soka-muturrari lotutako lehen idia San Sebastian egunean goizean goiz korritzen zen Lasala plazan, eta Inaute astearte arratsean azkena Konstituzio plazan. Bi egun horien bitartean igandero-igandero korritzen zen soka-muturra: goizean idi bana, eguerdian bina, eta hiruna arratsaldean. Toriloa Iñigo kalean izaten zen, lehenengo arraindegi zaharraren parean. Handik plazaraino eramango zuten sokatik tiraka, zeharka beste kaleren batetik sartzen ez bazen behintzat. Jakina, gazte jendeak besterik ez omen zuen nahi izaten: behar ez zeneko kale horietakoren batera ihes egitea; *karrera egitea* esaten zioten horri.

Idi korritzea ez zen nolana hasten; herri festa haundi guztiek bezala, bazituen bere erritoak. Lehen, *Juanitoren ibilaldia*. Juanito hori alkatetzako etxezaina zen. Caloiez ondo horniturik, festaren jabea bera balitz bezala, hantxe aterako zen zeremonia guztietan, agintarien baimena eskutan zuelarik, udal-txetik toriloraino. Kontzejuko arkupetik atera orduko, Basurkoren atabalak kolpe bakarra joko zuen, *Iriyarena* piezaren hasiera alegia. Plaza jendez gainezka

zegoela, izugarria izaten omen zen musika horrek pizten zuen eromena.

Bitartean, zain egon beharra eta, ez zen harriztekoa horrelako zerbait gertatzea: jendea kaletik balkoi batera begira, gero eta jende gehiago. Balkoian garrasi-negarrak nagusi. Behetik, jendea ere oihi eta kei-nuka. Halako batean, gizon bat ageri balkoian makil batekin: burni tartean makilarekin ihardun ondoren, bukatu dira negarrak; behetik, jendea txaloka. Zer gertatu ote da? Betikoa: umeak burua balkoiko burni tartetik sartu, eta gero ezin atera...

Emen dek! Hauxe da Irutxulo zahar hartako azken garrasia. Idiaren aurretik zetorren samalda, plazan trumilka sartzen zenean besterik ez zen entzuten. *Emen dek!* eta hantxe azalduko zen «lehen harakina»; eta atzetik, sokari tiraka, era guztietako gazteak. Orduko donostiarrak bi gauzatan berdintzen omen ziren denak: Polloera egin beharreko azken txangoan, eta... soka-muturraren aurrean! *Emen dek!* eta hantxe ikusiko ziren zilipurdika bandako musikoak, soldaduak, baita apaizak ere. *Emen dek!* danbolinteruak bigarren Iriyarenari ekiten zion arte, idia osteratorilora eramatekoa. Lan zailagoa izaten zen lura, eta Toloxa «azken harakinak» bere iaotasuna erakutsi behar izaten zuen.

GOTZON EGIA

Argazkia: KUTXA FOTOTEKA. Argazki artistikoa, Gipuzkoa Donostia Kutxa.

Donostiar haien garaiak...

Soka-muturra (eta 2)



Donostiarren idi festak ospe haundia izan behar zuen, baita Donostiatik kanpora ere. Ondoren azalduko dugun gertakariak, behintzat, hala erakusten digu.

Behin batean, Julian Gayarre tenore erronkariarra Londoneko Covent-Garden antzokian Freitschutz opera kantatzen ari zen; 1880 inguruan izan behar zuen. Isil-ehiztariak deabruari eskainitako balak funditzen dituen pasarteetan, kantuaren beroan donostiarren oihuaz gogoratu zen, eta bat-batean Emen dek! atera zitzaion Gayarrerri. Entzuleen artean Martin Peña donostiarra fortunatu, baita butakatik erantzun ere, ahal zuen indarrrik haundienaz: Soka-muturra! Eup!

Festa kentzeko udalak hartutako erabakiak sekulako istiluak ekarri zituen. Aurrekoan esan genuen bezala, 1902ko urtarrilaren 14an izan zen hori. Kale-argi, egunkari eta edifizio publiko bakarra ere ez zen gelditu harrikada galantik jaso gabe. Gipuzkoako Plazan indar armatuaren hiru deskarga izan ziren; Gasteizko eta Nafarroako goardia zibilen eta Gipuzkoako mikeleteen kontzentrazioa izan zen. Valentziako erregimentua kalera atera zen, angarila eta guzti,

eta Siziliakoa akoartelatuta gelditu zen gauzak baretu bitartean.

Hamasei zinegotzi izan ziren festaren kontra: Sebastian Matxinbarrena alkatea, Atxa, Bidaguren, Bizkarrondo, Resines, Navarro, Zaldua, Albisu, Elo-segi, Ducloux, Goiburu, Comin, Arrese, Ibarra, Lertxundi eta Nerekan; bederatzik bakarrik festaren alde: Colmenares, Laffitte, Inziarte, Iraola, Gaminde, Gabilondo, Mendiluze, Arrillaga eta Arzelus.

Ez zen, zorionez, bestelako gaitzik izan. Colmenares, Eraso, Zalakain eta herriaren haserre burutu zuten gizaseme bulartsuek zortzi egun egin zituzten kartzelan. Pikabea izeneko batek etorri behar izan zuen Bilbotik eta 26.000 pezetako bahitura jarri haiek kalera ateratzeko. Garai hartan dirutza hori ez zen, alajaina, hutsaren hurrengo izango!

Horrelaxe bukatu zen desagertzear zegoen Donostia zahar hartako azken aztarna. Harresiak hurrarekin berdindu zituztenean ez baina, Irutxulo zaharra soka-muturrarekin batera joan zela esan daiteke.

GOTZON EGIA

Argazkia: JESUS M. AROZAMENA. Viejas canciones donostiarres.